

# DBHko lehenengo ziklorako unitate didaktikoa

# Yusufen familia

## Helburuak\*

1. **Indarkeria eta gatazka** bereiztea.
2. **Gatazkak** konpontzeko erak gizabanakoengan dituen eraginei buruzko gogoeta egitea.
3. **Gatazka armatuen** eraginpean dagoen biztanleria zibila babesteko, nazioarteko komunitateak duen konpromisoa ezagutaraztea.

## Jardueren eskema\*

1. **“Yusufen familia”** rol-jokoa
2. **Eztabaida**

## Jardueren garapena eta orientabide didaktikoak\*

### 1. **“Yusufen familia” dinamika (rol-jokoa)**

#### 1. Sarrera

Jarduera honek rol-jokoaren dinamika du. Rol-joko honetan Darfurren (Sudan) kokatutako gatazka egoera bateko hainbat eragile agertuko zaizkigu.

Yusuf Darfurren bizi izan zen gaztea da. Geografiari dagokionez, Darfur Sudan mendebaldean dagoen eskualdea da, Afrika Erdiko Errepublikarekin, Txadekin eta Libiarekin mugan. Historiari dagokionez, berriz, arabiar nomaden eta eskualdean bizi diren hainbat talde etnikotako nekazari beltzen arteko borrokak eragin ditu artzaintzako lur eta eremuetarako sarbideak. Gatazka armatua 2003an hasi zen; urte horretan Yusufek eta bere familiak beren herria utzi behar izan zuten. Munduan ahaztuta dauden gatazka ugarietako bat besterik ez da Darfurkoa. Eta gatazka honek, hain zuzen ere, hainbat talde etnikoren arteko gerra ekarri du azkenik.

Eta istorio honetan azaltzen diren hainbat bizipen benetakoak dira bai eta zenbait pertsonaia ere, Yusuf bera esaterako. Beste batzuk joko hau egiteko moldatu dira. Yusuf Khartum hirira joan zen eta ez zen inoiz gehiago herrira itzuli. Bere herria suntsitu egin zuten, aita hil egin zitzaion eta berak amarekin eta ahizpekin alde egin zuen. Khartum inguruko errefuxiatu-esparruetan, ia bi milioi lagun bizi dira, Yusuf eta bere familia bezala beste lur batzuetara ihes egin beharrean izan direnak.

Rol-joko honetan egoera hau proposatzen da: beren lurretatik kanporatu dituzten biztanleek erkidego berri batean txertatu behar dutenean sortzen den gatazka-egoera. Kasu honetan Yusufen familiak bere jatorritik ihes egin du beste herririka batean errefuxiatzeko, baina bertako biztanleak aurka izango dituzte. Gatazka armatu askotan nonbaitera iritsi eta informazioa eskuratzeko izaten diren zailtasunen berri ere ematen du jokoak.

#### Rol-jokoaren jarraibideak

Rol-joko honetan zazpi taldetan banatuko dira neska-mutilak; talde bakoitzak gatazkako eragile bat ordeztuko du. Fitxen laguntzarekin, talde bakoitzak denbora jakin batean, rol jakin bat hartuko du bere gain (“antzeztu” egingo dute).

- Talde guztiak lauzpabost ikaslek osatuko dituzte 5, 6 eta 7 taldeak izan ezik. Hiru talde horiek bizpahiru ikaslek osatuko dituzte.

- Talde bakoitzari bere rola azaltzen duen fitxa emango zaiou (ikusirik ikasleentzako fitxak). Talde bakoitzak bost minutu izango ditu fitxa hori irakurri, rola buruzko zalantzak argitu eta *eman zaien rolaen alde jokatzeak lantzeko*.
- Jarduera gauzatzeko hogeita bost minutu izango dituzte.

### Rolen aurkezpena:

#### 1. Taldea: (4 edo 5 ikasle). Yusufen familia.

Zuen familia amak, bi arreba eta neba batek osatzen dute. Nekazari familia bat zarete, eta arpilatutako Darfur herrixka txikian bizi zineten. Harrapaketa izan zenean, bortxaz hil zuten zuen aita, eta etxea eta uzta galdu zenituzten.

Bizi-baldintzek zuen herrixkatik beste bizitoki baten bila ihes egitera behartu zaituztete: beste etxe bat non eraiki eta lurra non landu bilatu behar duzue. Beste herrixka horretara heldu zaretenean, bertan babes hartu nahi duzuela esan duzue, baina herriko zenbait biztanlek ez du nahi zuek bertan bizitzen geratzea.

Zuen helburua herrixkako biztanleak konbentzitzea izango da, zuek bertan bizitzen uzteko. Horretarako, zuen historiaren berri eman behar diezue beste parte-hartzaileei. Herrixkan denetarikoa jendea aurkituko duzue: zuei laguntzeko prest dauden familiak (4. taldeko merkatariak), zuek herrixkan gelditzearen aurka dauden familiak (2. taldeko mendi-hegaletako familiak) eta eztabaidan parte hartu ere nahi ez duten familiak (3. taldeko familia nekazariak). Hain zuzen ere, 3. talde hori da zuek herrixkan gelditzen uzteko konbentzitu behar duzuenak. Eta horretarako, 4. taldekoekin itunak egin ditzakezue.

#### 2. Taldea: (4 edo 5 ikasle). Mendi-hegaletako familiak.

Istoria hau gertatzen den herrixkan bizi zarete. Herrixkako familiarik txiroenak zarete eta zuen iritziz, familia berriak iristean ez da guztiontzako adina lur eta janari izango. Izan ere, mendi-hegaletara joan behar izan duzue bizitzera, eta mendi-hegaletan oso zaila da bizimodua ateratzea: iturrietatik urruti zaudete, ez da ia batere landaririk ernaltzen eta oso zaila da uzta biltzea.

Azken hilabeteotan familia asko heldu da gatazka-guneetatik eta dagoeneko nahikoa duzue. Zuen helburua nola edo hala Yusufen familia herrixkan ez gelditzea izango da. Horretarako, nekazari txikien taldea (3. taldea) Yusufen familiaren aurka jar dadin konbentzitzen saiatu beharko duzue.

#### 3. Taldea: (4 edo 5 ikasle). Nekazari txikiak.

Istoria hau gertatzen den herrixkako biztanle batzuk zarete. Familia gehiago iristeak ez du zuengan eraginik. Izan ere, lurraren jabe zaretenean nekazariak zarete eta bizirauteko baliabide nahikoa duzue. Ez duzue arazorik nahi, baina oraindik ere gogoan duzue zuen aitona-amonek ere egoera bera bizi izan zutela.

Yusufen familia eta beste errefuxiatuak hartu edo ez eztabaidatzen ari diren gainerako taldeak zuek konbentzitzen saiatuko dira, zeuek ere batzuen alde egin eta beren jarrerarekin bat etor zaitezten. Zuek haiek diotsuena entzun egin beharko duzue eta erabaki bat hartu.

#### 4. Taldea: (4 edo 5 ikasle). Herrixka berriko merkatariak.

Istoria hau gertatzen den herrixkako biztanleentzako batzuk zarete. Zuen iritziz, familia berriok herrixka suspertzeko aukera egokia dira. Izan ere, beren herrietatik dakarten esperientzia zuen esku jar dezakete eta zuen salgaiak ere erosiko dituzte.

Ondo deritzozue Yusufen familia zuen herrixkan bizitzen geratzeari. Eta gainerakoek ere Yusufen familia onar dezaten konbentzitzen saiatuko zarete.

#### 5. Taldea: (2 edo 3 ikasle). Kazetariak.

Inguru haietan dauden kazetariak izango zarete. Badakizue gatazka armatutik ihesi doazenean inguruko herrixketan eztabaida ugari sorrarazten ari direla, eta elkarren aurka dauden alde guztien testigantza jaso nahi duzue. Herrixkara iritsi eta gertatzen ari denaren berri jakin nahi duzue, zenbat familia diren, nondik datozen eta zer dela eta alde egin duten beren jaioterrietatik. Polizia (6. taldea) gatazka-gunera sartzea eragozten saiatuko zaizue. Ez dute handik kanpora arazoa ezagutu dadin nahi; izan ere, gertatzen denaren berri izan nahi duen oro isilarazteko interes politikoak eta ekonomikoak daude.

Gatazka-gunean sartzea lortu behar duzue, kontra dauden aldeekin hitz egin eta informazioa biltzeko. Polizia, agintarien mandatu, gune horretarako sarbidea eragozten saiatuko zaizue.

## 6. Taldea: (2 edo 3 ikasle). Poliziak.

Istoria hau gertatzen den tokiko poliziak zarete. Herrialdeko agintarien mandatu kazetariak bertara heltzea eragotzi behar duzue eta ez diezue gatazka-gunera iristen utzi behar. Ez duzue zuen herriaren izen ona gehiago galtzea nahi, horrek eraginak izan baititzake bai laguntzak jasotzeko orduan, bai merkataritza-harremanetan, bai turismoan nahiz babestu behar duzuen enpresetakoren batean. Indarkeriak atzerritarrak izutzen baditu, ezin izango diozue diru-sarrera horri eutsi eta herrialdeko ekonomiak horren ondorioak jasan beharko ditu.

Kazetariak gatazka-gunera iristea eragozten saiatuko zarete. Egoera hau konponbidean dela eta ez zaiola garrantzirik eman behar azaldu behar diezue...Geroratzea eragiteko estrategiak bilatuko dituzue, adibidez, gatazka-gunera heldu ahal izateko paperak betetzera behartzea (*Letra-zopa fitxa* kazetariak gune honetara sartzeko baldintza bezala jar dezakezue).

## 7. Taldea: (2 edo 3 ikasle) Nazioarteko begiraleak.

Nazioarteko begiraleak zaretenez, guztiaren berri jaso behar duzue, idatziz. Ezin duzue gatazkan parte hartu, ezta talde baten edo bestearen alde egin ere. Eta oso garrantzitsua da gertatutako guztiaren berri jasotzea.

Argitu beharko dituzuen kontuak:

- Zein da gatazkaren arrazoia?
- Zer eragin du?
- Zenbat talde daude elkarren aurka? Zein helburu du bakoitzak?
- Nola komunikatzen dira beraien artean?
- Zein da talde bakoitzaren jokoera?

### 2. Rol-jokoaren garapena, (25 minutu iraungo du)

### 3. Jokoa buruzko eztabaida, (Irakasleak moderatzaile lanak egingo ditu)

LEHENENGO ZATIA: (talde bakoitza bere rolean)

- Talde bakoitzak jokoan zer moduz moldatu den azalduko du: Bere helburua zein zen, ze estrategia zituen lortzeko, ze zailtasun topatu dituen, emaitza zein izan den eta prozesu guztian nola sentitu den. Hurrengo orrialdean topatuko duzuen koadroa bizipen guztiak biltzen lagun diezazueke.
- Beste testigantza guztiak entzun ondoren "nazioarteko begiraleen" taldeak gertatutakoaz egin duen balorazioaren berri emango du.
- Guztien artean irtenbide posibleak eman beharko dituzue.

### Orientabide didaktikoak:

Talde bakoitzak bere bertsioa azaldu behar du. Garrantzitsua da talde bakoitzari, beste taldeek azalpenak eten gabe, gertatutakoaren berri emateko aukera ematea; talde bakoitzak gertatutakoei buruzko bere ikuspegia azaldu behar du. Garrantzitsua da, baita ere, dinamikan zehar sortu diren sentimenduak azaleratzea: nola sentitu dira?, zergatik?, beren jarrera defendatzeko argudioak falta izan zaizkie?

Eztabaidan agertu beharko luketen alderdiak:

- Gatazka eta indarkeriaren arteko aldea (gatazka berezkoa da gizakion arteko harremanetan, eta arazoa ez da gatazka izatea baizik eta gatazkari aurre egiteko erabilitako modua).
- Kazetariak informazioa lortzeko izan dituzten zailtasunak. Ekintza gertatu bitartean kazetariak fitxa bat egiten aritu direla azaldu.

- Gatazketan nazioarteko begiraleen zeregina. Gertatutakoa jasotzeko, gatazkaz kanpoko norbait bertan izateak duen garrantzia.
- Begiraleek prozesuaren deskribapena egin behar dute. Egin gogoeta eta aztertu ea aldean bertsioak eta begiraleenak bat datozen.

Fitxa honek gatazka aztertzen lagun dezake:

Gatazka-maila	Gizabanakoarena Bi lagun artekoa Bi lagun baino gehiagoren artekoa
Parte-hartzaileak	Benetakoak Alegiazkoak Ikasleak berak (gure gelakoak nahiz beste gela batekoak) Haurrak Helduak
Zergatia	Gauzak lortzeko (behar materialak asetzeko) Hobeto sentitzeko (behar psikologikoak nahiz sozialak asetzeko)
Iritziak	Gatazka era egokian konpondu dela uste duzue?
Jokabideak	Nola uste duzue konpondu dutela gatazka zuen ikaskideek? Zergatik? Zein jarrera erabili dute gatazka konpontzeko? Oldarkortasuna erabili dute? Akordiorik iritsi dute? Elkarrizketarik izan dute? Bortxakeria fisikorik izan da?
Ondorioak	Zer gertatuko da ondoren?
Azken erabakia	Zein izango litzateke jokabiderik egokiena?

## 2. Eztabaida

Rol-jokoan izandako papera alde batera utzi eta azken elkarrizketari ekingo diogu. Eztabaida honetan bi puntu izango dira mintzagai: batetik, herrixkako biztanleen arteko gatazka azaltzea; bestetik, kazetariak gatazka-gunera sartzeko izan dituzten eragozpenak. Aurreko fitxak eztabaida zedarritzen lagun dezake.

**Lehenengo puntuak** tartean dauden biztanleei eragiten die eta gatazkek kudeatzeko dugun moduarekin du zerikusia. Eztabaida pizteko, gatazka baten aurrean har daitezkeen jarrerak zein diren esateko eska diezaiokegu taldeari, eta joko honetan hartu diren jarrerekin lotzeko (indarkeriazko aurkaritza, negoziazioa eta lankidetzeta edo axolagabekeria). Honako galdera hauek lagungarri izan daitezke eztabaidarako:

- Nola jokatu zenukete joko honetan azaldutakoaren antzeko egoera batean?
- Zein da indarkeriaren eta gatazkaren arteko aldea? Gatazka guztiak txarrak direla uste duzue? Zergatik?
- Ezagutzen al duzue joko honetan azaldutakoaren antzeko egoerarik?
- Nola sentitzen zarete beste herrialde edo toki bateko norbait zuen gelara etortzen denean? Bere egoerak kezkatu egiten zaituzte? ala bost axola zaizue?

Interesgarria izango litzateke ondorioetan “bestearen” (ikaskidearen, auzokoaren, lagunaren, eta abarren) tokian jartzearen garrantzia aipatzea, bakean bizi den mundu bat eraikitzeko abiapuntu bezala, besteen ongizateaz eta duintasunaz kezkatzeko beharra adieraztea.

**Eztabaidatu beharreko** bigarren puntua informatzaileek eta nazioarteko komunitateak biztanleria zibila erasaten duen indarkeria egoeretan duten zeregina da. Informazioa lortzeko eta gatazka nazioartean ezagutarazteak duten garrantzia aipa daiteke.

Eztabaida pizteko honako galdera hauek egin daitezke:

- Jarduera honi ekin aurretik bazenuen Darfurko gatazkaren berri? Eta letra-zopan aipatutako gainerako gatazken berri?
- Hedabideetan, zergatik aipatzen ote dira gatazka batzuk beste batzuk baino gehiago? Egunkaria zabaltzean edo albistegiren bat ikusten dugunean gatazka armatuei buruzko albisteak jaso ohi ditugu, baina ez da egunero berri ematen, ezta planeta osoko gatazka guztiei buruz aritzen ere. Egoera horietan bizi diren gehienak biktimak eta errefuxiatuak dira. Horren adibide dira Darfur (Sudan mendebaldean), Afganistan, Mendebaldeko Sahara, eta abar. Zuetako inork izan al du hauen berririk?
- “Babesa emateko erantzukizunaren” definizioan zera jasotzen da: nazioarteko komunitateak gatazka armatuetako biktimei babesa ematen parte hartzeko duen beharra (baita, beharrezkoa bada, indar armatuak erabiliz ere), gatazka hauetan gizateriaren aurkako krimenak, genozidioa, gerra-krimenak nahiz garbiketa etnikoa egiten ari badira eta, betiere, beren gobernuek ezin badituzte babestu edo ez badituzte babestu nahi. Zure ustez, Darfurren beharrezkoa da parte-hartzea? Zergatik?

Bilatu informazioa web hauetan: [www.intermonoxfam.org](http://www.intermonoxfam.org) eta [www.armsbajocontrol.org](http://www.armsbajocontrol.org)

Eztabaida horrek erakutsi beharko luke guztion ardura dela indarkeria egoerak erasandako biztanleriaren babesa bermatzea, baita informazioa izateak eta gizakien eskubideak urratzen dituzten kasuak salatzeak duten garrantzia ere.

## 1. Taldea. Yusufen familia.

Zuen familia osatzen dute amak, bi arrebak eta neba batek. Nekazari familia zarete, arpilatua izan zen Darfur herrixka txikian bizi zena. Harrapaketa izan zenean, bortxaz hil zuten zuen aita, eta etxea eta uzta galdu zenituzten. Bizi-baldintzek zuen herrixka utzi eta beste bizitoki baten bila ihes egitera behartu zaituztete: beste etxe bat eraikitzeko lekua eta lurra non landu bilatu behar duzue. Aurkitu duzue horretarako herrixka bat eta bertara heldu zaretenean, babes hartu nahi duzuela esan duzue, baina biztanleriaren zati batek ez du zuek bertan bizitzerik nahi.

Zuen helburua herrixkako biztanleak konbentzitzea izango da, zuei bertan bizitzen uzteko. Horretarako, zuen historiaren berri eman behar diezue beste parte-hartzaileei. Herrixkan denetarik izango duzue: laguntzeko prest dauden familiak (4. taldeko merkatariak), zuek herrixkan gelditzearen aurka dauden familiak (2. taldeko mendi-hegaletako familiak) eta eztabaidan parte hartu ere nahi izango ez dutenak (3. taldeko familia nekazariak). Hain zuzen ere, zuek 3. talde horretakoak konbentzitzen saiatu behar duzue. Eta horretarako 4. taldekoekin akordioak egin ditzakezue.



Fotokopia daitekeen fitxa

## 2. Taldea. Mendi-hegaletako familiak

Istoria hau gertatzen den herrixkan bizi zarete. Herrixkako familiarik txiroenak zarete eta zuen iritziz, familia berriak iristean ez da guztiontzako adina lur eta janari izango. Izan ere, mendi-hegaletara joan behar izan duzue bizitzera, eta mendi-hegaletan oso zaila da bizimodua ateratzea: iturrietatik urruti zaudete, ez da ia batere landarerik ernaltzen eta oso zaila da uzta biltzea.

Azken hilabeteotan familia asko heldu da gatazka-guneetatik eta dagoeneko nahikoa duzue. Zuen helburua nola edo hala Yusufen familia herrixkan ez gelditzea izango da. Horretarako, nekazari txikien taldea (3. taldea) Yusufen familiaren aurka jar dadin konbentzitzen saiatu beharko duzue.



Fotokopia daitekeen fitxa

### 3. Taldea. Nekazari txikiak

Istoria hau gertatzen den herrixkako biztanle batzuk zarete. Familia gehiago iristeak ez du zuengan eraginik. Izan ere, lurraren jabe zaren nekazariak zarete eta bizirauteko baliabide nahikoa duzue. Ez duzue arazorik nahi, baina oraindik ere gogoan duzue zuen aitona-amonek ere egoera bera bizi izan zutela.

Yusufen familia eta beste errefuxiatuak hartu edo ez eztabaidatzen ari diren gainerako taldeak zuek konbentzitzen saiatuko dira, zeuek ere batzuen alde egin eta beren jarrerarekin bat etor zaitezten. Zuek haiek diotsuena entzun egin beharko duzue eta erabaki bat hartu.



Fotokopia daitekeen fitxa

### 4. Taldea. Merkatariak

Istoria hau gertatzen den herrixkako biztanleetako batzuk zarete. Zuen iritziz, familia berriok herrixka suspertzeko aukera egokia dira. Izan ere, beren herrietatik dakarten esperientzia zuen esku jar dezakete eta zuen salgaiak ere erosiko dituzte.

Ondo deritzozue Yusufen familia zuen herrixkan bizitzen geratzeari. Eta gainerakoek ere Yusufen familia onar dezaten konbentzitzen saiatuko zarete.



Fotokopia daitekeen fitxa

## 5. Taldea. Kazetariak

Inguru haietan dauden kazetariak izango zarete. Badakizue gatazka armatutik ihesi doazenek inguruko herrixketan eztabaida ugari sorrarazten ari direla, eta elkarren aurka dauden alde guztien testigantza jaso nahi duzue. Herrixkara iritsi eta gertatzen ari denaren berri jakin nahi duzue, zenbat familia diren, nondik datozen eta zer dela eta alde egin duten beren jaioterrietatik. Polizia (6. taldea) gatazka-gunera sartzea eragozten saiatuko zaizue. Ez dute handik kanpora arazoa ezagutu dadin nahi; izan ere, gertatzen denaren berri izan nahi duen oro isilarazteko interes politikoak eta ekonomikoak daude.

Gatazka-gunean sartzea lortu behar duzue, kontra dauden aldeekin hitz egin eta informazioa biltzeko. Polizia, agintarien mandatuz, gune horretarako sarbidea eragozten saiatuko zaizue.



Fotokopia daitekeen **fitxa**

## 6. Taldea. Poliziak

Istoria hau gertatzen den tokiko poliziak zarete. Herrialdeko agintarien mandatuz kazetariak bertara heltzea eragotzi behar duzue eta ez diezue gatazka-gunera iristen utzi behar. Ez duzue zuen herriaren izen ona gehiago galtzea nahi, horrek eraginak izan baititzake bai laguntzak jasotzeko orduan, bai merkataritza-harremanetan, bai turismoan nahiz babestu behar duzuen enpresetakoren batean. Indarkeriak atzerritarak izutzen baditu, ezin izango diozue diru-sarrera horri eutsi eta herrialdeko ekonomiak horren ondorioak jasan beharko ditu.

Kazetariak gatazka-gunera iristea eragozten saiatuko zarete. Egoera hau konponbidean dela eta ez zaiola garrantzirik eman behar azaldu behar diezue...Geroratzea eragiteko estrategiak bilatuko dituzue, adibidez, gatazka-gunera heldu ahal izateko paperak betetzera behartzea (*Letrazopa fitxa* kazetariak gune honetara sartzeko baldintza bezala jar dezakezue).



Fotokopia daitekeen **fitxa**



## 7. Taldea. Nazioarteko begiraleak

Nazioarteko begiraleak zaretenez, guztiaren berri jaso behar duzue, idatziz. Ezin duzue gatazkan parte hartu, ezta talde baten edo bestearen alde egin ere. Eta oso garrantzitsua da gertatutako guztiaren berri jasotzea.

Argitu beharko dituzuen kontuak:

- Zein da gatazkaren arrazoia?
- Zer eragin du?
- Zenbat talde daude elkarren aurka?
- Zein helburu du bakoitzak?
- Nola komunikatzen dira beraien artean?
- Zein da talde bakoitzaren jokaera?



Fotokopia daitekeen **fitxa**

## Letra-zoparen fitxa (askatzeko)

Honako letra-zopa honetan ahaztu diren zenbait gatazka aurkitu behar dituzue, beheko zerrendakoak, hain zuzen.

A K E Y E M E N Z K K I K A A  
K O K M E F U D B O M B O A L  
K H E D U S G E N L O T L N N  
S O E A A T U G A N D A O G E  
E G A I H G O U G X I G N O E  
N E S P A B O V U E A G B L S  
E I X O S U R S O M A L I A A  
G A L I A A R U A B E D A Z I  
A E M T O R I D F H I A G O N  
L I B E R I A A R M A L A R E  
E A S U O S Y N S O G R D M X  
R E Y E B E Y G T S U U A O T  
T X I Y O M E X I K O I O I E  
Y T U U D M I J O T T I A S X  
B U R U N D I R R S S L K V T

1. ANGOLA
2. BURUNDI
3. TXETXENIA
4. KOLONBIA
5. KONGO
6. ETIOPIA
7. LIBERIA
8. MEXIKO
9. SAHARA
10. SENEGAL
11. SOMALIA
12. SUDAN
13. UGANDA
14. YEMEN

Fotokopia daitekeen fitxa

## Letra-zoparen fitxa (askatua)

A K E Y E M E N Z K K I K A A  
K O K M E F U D B O M B O A L  
K H E D U S G E N L O T L N N  
S O E A A T U G A N D A O G E  
E G A I H G O U G X I G N O E  
N E S P A B O V U E A G B L S  
E I X O S U R S O M A L I A A  
G A L I A A R U A B E D A Z I  
A E M T O R I D F H I A G O N  
L I B E R I A A R M A L A R E  
E A S U O S Y N S O G R D M X  
R E Y E B E Y G T S U U A O T  
T X I Y O M E X I K O I O I E  
Y T U U D M I J O T T I A S X  
B U R U N D I R R S S L K V T

Fotokopia daitekeen fitxa